



Balioa izango duen diskurtso bakarra hizlariak bertan eskainiko duena izango da.
El único discurso válido será el pronunciado por el orador o la oradora en el acto.

BAKARTXO TEJERIA
Eibar, 2024ko apirilaren 15a

Arratsalde on, Eibar!

Kanpainaren azken txanpan sartu gara. Helburu argi bat daukagu: datorren igandean zer egin erabaki gabe daudenak konbentzitu behar ditugu; konbentzitu bozkatzera joateko eta konbentzitu PNV bozkatzeko. Eta horretarako behar zaituztegu.

Zalantzan daudenei beren botoa erabakigarria dela esan behar diegu. Hauteskunde hauen emaitza beraien esku dagoela. Eta PNVk gobernatzen jarraitzea nahi badute, PNVk herri honen buru izaten jarraitzea nahi badute, datorren igandean PNVri eman behar diote botoa. Imanol Pradales lehendakari izatea nahi badute, PNVri eman behar diote botoa.

Hauteskunde hauetan aukeratu egin behar dugu, ongizatean aurrera edo atzera egitea dugu jokoan, herri gisa aurrera edo atzera egitea. Eta, hori gutxi balitz, politika egiteko modua aukeratzen da. PNVren eredu abertzale, demokratiko eta justuarekin jarraitzea edo eredu inposatzailearen hautua egitea. Ekimen zehatzak eta eraginkorrak dituen proiektu baten edo edukirik gabeko proiektu baten artean aukeratzea.

Ibilbideagatik, koherentziagatik eta etorkizuneko proiektuagatik, PNV da Gipuzkoak eta Euskadik aurrera egiten jarraitzeko aukera. Hori zabaldu behar dugu igandera arte. Eta egingo dugu. Partidua jokoan dago eta dena emango dugu, Gipuzkoan eta Euskadin irabazteko.

Gure ibilbideak bermatzen gaitu. 1977. urteaz geroztik gidatu dugu herri hau. Erabaki asko hartu behar izan ditugu, eta erabaki estrategikoetan asmatu dugu. Ez dugu edonola egin. Demokrazia defendatuz eta herri honen borondatea errespetatuz egin dugu.

Hor dago gakoa: errespetuan. Euskal herritarren borondatea errespetatzea, beren lehentasunak norberaren lehentasunen edo alderdikarien gainetik jartzea; eta herriaren eta herritarren eskubideak errespetatzea, eskubide guztiak. Eta hori da batzuen eta besteen politika egiteko moduaren arteko aldea. Batzuek herriarekin erabakitzen dugu, besteek herriaren izenean erabakitzen dute.

Elkarrizketarako eta akordioak lortzeko gaitasunak definitzen dute gure politika egiteko modua. Badakigu akordio zabalak onak direla herritarrentzat. Gehiengo absolutua izanda, ere bai. Azken lau urteotan frogatu dugun moduan.

Kanpainan, denek hitz egiten dute akordioez eta elkarlaneko gobernantzaz, baina errealitatea oso bestelakoa da. Batzuek beti ezezkoan egon dira, beti kontra. Eibarren ere bai. Agirre alkate zenean, Azitaingo industrialdea egiteko pausuak ematen hasi zen, eta, nola ez, HB –eta alderdi sozialista ere-, aurka agertu ziren. Berandu, baina azkenean egin zen, gainera txiki geratu zen, orain, alboan dago Polo Teknologikoa, eta Eusko Jaurlaritzak 16 milioi euro inbertitu ditu. Industriak garatu zuen Eibar eta industriak argituko du Eibarren etorkizuna. Gu, herriaren alde. Beraiek, beti aurka.

Egia da azken bi urte hauetan akordio batzuk egon direla. Baina horrek bazeukan misio bat atzean: urtetan eduki duten ezezko jarrera estali eta gizartearen aurrean itxura berri bat aurkeztea. Baina itxura besterik ez da; jarrerak ez dira aldatzen hain denbora gutxian. Ez fidatu, betikoak dira. Lehengo lepotik burua.

Horregatik ere garrantzitsua da datorren igandean PNVri bozkatzea. Guztiontzat eta guztiekin gobernatzen jarrai dezagun. Guztion onerako politika egiten, euskal herritarren bizi-kalitatea hobetzen, herri honek politikoki eta sozialki aurrera jarrai dezan.

Ideiak eta ekimenak ditugu. Asko. 575etik gora. Proposamen zehatzak dira eta ez hitz hutsak:

- Irtenbideak eskaintzen ditugu anbulatorioetako itxaronaldia 48 ordura murrizteko;
- eta ebakuntza kirurgikoetarako itxaronaldia 50 egunera jaisteko, dagoeneko jaisten ari bada ere.
- Etxebizitza kenkaria mantentzea defendatzen dugu –beste batzuek kendu nahi dute–.
- Gazteek etxebizitza bat erosi edo alokatu, eurek nahi dutena, egin ahal izatea nahi dugu, eta horregatik, diru-sarreraren mugak handituko ditugu etxebizitza babestu bat eskuratu ahal izateko eta alokairurako laguntzak jasotzeko.
- Ekimenak ditugu gure industria garatzen jarraitzeko, gure ekonomiaren motorra baita, aberastasuna eta kalitatezko enpleguaren sortzailea.
- Lehen sektoreari laguntzeko ekimenak, lehiakorrak eta iraunkorrak izan dadin, horretan lan egiten duten pertsonen bizi-kalitatea hobetuz.
- Trantsizio hirukoitzari aurre egiteko proposamenak.
- Euskara biziberritzea bultzatzen jarraitzeko ekimenak.
- Eta gure herri aitortzan aurrera egiteko proposamenak ...

Baina ekimen horiek guztiak garatu ahal izateko botoak behar ditugu. Eta zuek guztion inplikazioa behar dugu.

Behar zaituztegu. Goazen irabaztera Gipuzkoan eta Euskadin. Izan kritiko, izan exigente, baina fida zaitezte PNVrekin, ez dizuegu huts egingo. Eman botoa PNVri. Guztion artean lortuko dugu.

Gora Euskadi askatuta!